



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 16

Vitoria-Gasteiz, 16 de febrero de 2016

Lehendakaritza

MILIOI BAT EUROKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTU DIRA MEMORIA HISTORIKOARI ,BERRESKURAPENARI, BAKEARI, BIZIKIDETZARAKO ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROIEKTUETARAKO.

Eusko Jaurlaritzak aurten 1.005.000€ko diru-laguntzak emango ditu Memoria historikoa eta bakea sustatzea, giza eskubideen konpromisoan oinarritutako bizikidetzaren demokratikoa ondartzeko eta aitortzea sustatzen dituzten proiektuak finantzatzeko. Diru-laguntza horien deialdia Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako hiru ebazpenetan jaso da eta ebazpen horiek gaur Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu ditu.

Zehazki, Jaurlaritzak 600.000 euroko diru-laguntza emango du Euskal Autonomia Erkidegoan aritzen diren erakunde eta mugimenduek garatuko dituzten giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren alorreko programa eta ekimenetarako, eta beste 300.000 euro, EAEko udalek eta bestelako toki erakundeek alor horretan garatuko dituzten proiektuetarako.

Bi kasuetan, diru-laguntza horiek bake eta bizikidetzaren alorreko planak eta eskola edo familia alorreko gatazkek konpontzeko proiektuak abian jartzea finantzatzeko balio izango dituzte, baita ikastaroak, tailerrak, dibulgazio jardunaldiak eta prestakuntza eta sentsibilizazio ekimenak egiteko ere.

Memoria historikoa dagokionez, Jaurlaritzak 105.000 euro emango ditu diruz laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoan, 1.936-1.977 bitartean, memoria historikoa, balio demokratikoa, demokraziaren eta askatasunaren borroka berreskuratzeko, zabaltzeko eta ezagutarazteko proiektuak. Diru-laguntza horietara joan ahal izango dute estatutuaren helburu modura memoria historikoa berreskurapena duten izaera pribatuko eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak.

Diru-laguntza horiek eskatzeko epea ebazpen horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren biharamunetik aurrera kontatzen hasita eta aipatutako datatik hilabetera bukatuko da diru-laguntzak horiek eskatzeko aukera.

Herri Administrazioa eta Justizia

GOBERNUAK EGUNEAN 3.500 KONTSULTA BAINO GEHIAGO ERANTZUN ZITUEN HERRITARREI ARRETA EMATEKO «ZUZENEAN» DOAKO ZERBITZUAN

- 2015ean Gobernuak 875.827 galderari erantzun zien. Kontsulta gehienak Bizkaian, emakumeek, gaztelaniaz eta aurrez aurre egindakoak ziren.
- Herritarrek bilatzen duten informazioa etxebizitzarekin, hezkuntzarekin, enpleguarekin edo laguntza sozialekin dago lotuta gehienetan.
- Doako zerbitzu horren erabiltzaileek 8,5eko nota jartzen diote (10en gainean), bereziki ZUZENEAN zerbitzuko langileengandik jasotzen duten arretarengatik.
- Oso positiboki baloratu dute ere jasotako informazioaren kalitatea, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna.

Gobernu Kontseiluak ZUZENEAN zerbitzuaren 2015eko balantzea aztertu du gaur. Doako zerbitzu publiko horren bitartez euskal herritarrei arreta ematen zaie lau kanalen bidez: aurrez aurre (*hiru bulego hiru hiriburuetan*), telefonoz (012) interneteko postontziaren bidez (helbide honetan: www.euskadi.eus) edo mezularitza azkarraren bidez (*Telegram bidez, 688 67 12 34 telefonozenbakian*). Iaz, ZUZENEAN zerbitzuak 875.827 kontsulta jaso zituen, egunean 3.532 batez beste. 2014 urtearekin alderatuz zerbitzuaren kontsultak %5,5 igo dira, urte horretan 829.818 kontsultak jaso ziren eta.

2015ean ARGITUTAKO KONTSULTAK

Aurrez aurre (% 61,1)			Telefonoz (% 43,9)	Online (% 1,4)	Telegram bidez (% 0,1)	GUZTIRA
Bilbo	Donostia	Gasteiz				
251.500	132.635	118.146	360.889	11.652	1.005	875.827

Datu horiek aztertuta, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Kontsulta gehien jasotzen duten gaiek honako hauekin dute lotura: etxebizitza, hezkuntza, lana eta enplegua eta gizarte-gaiak.
- Gizon baino emakume gehiagok erabiltzen dute zerbitzua (% 39 eta % 60, hurrenez hurren).
- Adinari dagokionez, Zuzenean gehien erabiltzen duen adin-taldea 30 eta 45 urte artekoa da. Erabiltzaileen batez besteko adina 41 urte ingurukoa da.
- Kontsulta gehienak Bizkaian egiten dira.
- Kontsulten % 72,8 gaztelaniaz egin dira.

KONTSULTAREN GAIA 2015.

	Aurrez aurre	Telefonoz	Online	Telegram bidez	Guztira
Etxebizitza	% 34	% 29	% 14	% 27	% 26
Hezkuntza	% 12	% 13	% 19	% 29	% 18,25
Lana eta enplegua	% 18	% 23	% 3	% 1	% 11,25
Gizarte Gaiak	% 14	% 14	% 6	% 1	% 8,80
Garraioa eta mugikortasuna	% 5	% 10	-	% 1	% 4
Administrazio publikoa	% 3	% 1	% 5	% 5	% 4
Jarduera ekonomikoak	% 3	% 1	% 6	% 1	% 2,8
Euskara	% 1	% 1	% 3	% 4	% 2,25
Osasuna	% 1	% 2	% 5	-	% 2
Hirigintza eta lurraldea	% 2	% 2	-	-	% 1

ERABILTZAILIEN SEXUA 2015

Kanala	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Aurrez aurre	% 39	% 61
Telefonoz	% 30	% 70
Online Informazioaren kalitatea	% 48	% 49
Guztira	% 39	% 60

*Ez dugu kontsulta Telegram bidez egin duten erabiltzaileen sexuaren arabera daturik.

ERABILTZAILIEN ADINA 2015

	Aurrez aurre	Telefonoz	Online
18-29 urte	% 16	% 14	% 18
30-45 urte	% 54	% 58	% 35
46-64 urte	% 26	% 24	% 41
65 urtetik gora	% 5	% 5	% 2

*Ez dugu adinaren arabera daturik kontsulta Telegram bidez egin duten erabiltzaileentzat.

ERABILTZAILEAK KONTSULTA EGIN DENEKO LURRALDEAREN ARABERA 2015

	Aurrez aurre	Telefonoz	Online
Araba	% 24	% 17	% 14
Bizkaia	% 48	% 45	% 45
Gipuzkoa	% 25	% 30	% 22
Besteren bat	% 2	% 7	% 15
ED/EDE	% 2	% 1	% 5

*Ez dugu kontsulta Telegram bidez egin duten erabiltzaileen lurraldearen araberako daturik.

ERABILTZAIILEEN HIZKUNTZA 2015 (%)

	Aurrez aurre			Telefonoz	Online	Telegram bidez	Guztira
	Bilbo	Donostia	Gasteiz				
Euskara	% 12	% 23	% 8	% 10	% 9	% 35	% 16,17
Gaztelania	% 79	% 67	% 89	% 78	% 75	% 49	% 72,83
Bata zein bestea	% 9	% 10	% 2	% 12	% 14	% 9	% 9,40
ED/EDE	0	% 1	% 1	-	% 2	% 7	% 1,8

GORA EGIN DU ERABILTZAIILEEN GOGOBETETZE MAILAK

Gainera, kanpo auditoretza batek txosten bat egin du ZUZENEAN zerbitzua aurrez aurre edo telefonoz erabili duten pertsonen artean, haien gogobetetze mailaneurtzeko. Zerbitzuak 8,5eko nota lortu du 10en gainean batez beste, 2015eko erabiltzaileen balorazioaren arabera. Horrek esan nahi du zerbitzuaren nota 0,4 puntu igo dela 2014an jaso zen puntuazioarekiko. Zehazki, ZUZENEAN zerbitzuaren erabiltzaileek 8,8ko nota eman diote telefonozko arretari eta 8,3koa aurrez aurreko arretari.

GOGOBETETZE MAILA GLOBALA (10en gainean)

	AURREZ AURREKO ARRETA	TELEFONO BIDEZKO ARRETA	GOGOBETETZEA BATEZ BESTE
2014	7,7	8,7	8,1
2015	8,3	8,8	8,5

Erabiltzaileen % 92 nahikoa gustura edo oso gustura daude jasotako zerbitzuarekin, hau da, 7 eta 10 puntu arteko nota ematen diote. Gainera, erabiltzaileen % 55ek nota altuena ematen diote: 9 eta 10 puntu artean.

JASOTAKO ZERBITZUAREKIKO GOGOBETETZE MAILA 2015

	AURREZ AURREKO ARRETA	TELEFONO BIDEZKO ARRETA	GUZTIRA
Batere gustura ez (0-1 puntu)	% 1	-	% 1
Ez oso gustura (2-4 puntu)	% 1	-	% 1
Erdi gustura (5-6 puntu)	% 7	% 4	% 6
Nahikoa gustura (7-8 puntu)	% 45	% 27	% 37
Oso gustura (9-10 puntu)	% 45	% 67	% 55
ED/EDE	% 1	% 1	% 1

laz ZUZENEAN erabili zutenek oso balorazio positiboa ematen diote zerbitzuak beste inora jo gabe kontsulta argitzeko duen gaitasunari, erabilitako denborari eta azken emaitzari.

	AURREZ AURREKO ARRETA			TELEFONO BIDEZKO ARRETA	GUZTI RA 2015	2014 GUZTI RA
	Bilbo	Donostia	Gasteiz			
Zerbitzuak kontsulta argitzeko duen ahalmena	8,1	8,0	8,3	8,8	8,4	7,2
Kontsulta argitzeko guztira erabilitako denbora	7,9	8,0	8,8	8,8	8,4	7,9
Kontsultaren azken emaitza	8,2	8,3	8,9	8,9	8,6	8

Erabiltzaileek hoberen baloratutako gaien artean daude: herritarrei arreta emateko ordutegi zabala, telefonoz arreta emateko bizkortasuna eta telefonozko kontsultan erabilitako denbora. Kasu guztietan, erabiltzaileen pertzepzioa hobea da 2015ean aurreko urtean baino.

ZERBITZUAREN ANTOLAKETA (10en gaineko puntuak)

	AURREZ AURREKO ARRETA			TELEFONO BIDEZKO ARRETA	GUZTI RA 2015	GUZTI RA 2014
	Bilbo	Donostia	Gasteiz			
Arreta jasotzeko itxaron beharreko denbora	7,6	7,8	8,8	8,7	8,3	8
Herritarrei arreta emateko ordutegi zabala	8,8	8,6	9,1	9	8,9	8,2
Erabiltzaileen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna	7,6	7,7	7,9	-	7,7	7
Itxaroteko ilarak kudeatzeko sistema	8,1	7,7	8,6	-	8,1	-
Arreta jasotzeko egin behar izandako deikopurua	-	-	-	8,8	8,8	8,2
Telefono bidezko kontsultan erabilitako denbora	-	-	-	8,8	8,8	8,2

ZUZENEAN zerbitzuko pertsonalaren lanak ere oso balorazio ona jaso du, batik bat: erabiltzailearen hizkuntzara (euskarara edo gaztelaniara) moldatzeko ahalmena (9,2), adeitasuna (8,9), ulerterratasuna (8,8) eta prestakuntza (8,7). Erabiltzaileek ZUZENEAN zerbitzuan lan egiten duten pertsonen lanari buruz pertzepzioari dagokionez, arlo guztietan hobetzen dela ikusten da.

ZUZENEAN ZERBITZUKO LANGILEAK (10en gaineko puntuazioa)

	AURREZ AURREKO ARRETA			TELEFONO BIDEZKO ARRETA	GUZTIRA 2015	GUZTIRA 2014
	Bilbo	Donostia	Gasteiz			
Pertsonalaren adeitasuna eta emandako tratua	8,4	8,7	8,9	9,4	8,9	8,8
Arreta eman dizun pertsonaren argitasuna eta ulerterratasuna	8,3	8,6	8,8	9,3	8,8	8,7
Kontsulta argitzeko arreta eman dizun pertsonak agertu duen interesa eta ardura	8,1	8,4	8,5	9,1	8,6	8,5
Arreta eman dizun pertsonaren prestakuntza	8,3	8,6	8,8	9,1	8,7	8,5
Solaskidearen hizkuntzara (gaztelania/euskara) moldatzeko ahalmena	8,8	9,0	9,1	9,5	9,2	8,9

lazko balantzearen arabera, erabiltzaileek ZUZENEAN zerbitzuaren bidez jasotako informazioaren erabilgarritasuna eta kalitatea nabarmentzen dituzte. Gainera, 2014rekin alderatuta, iaz erabiltzaileek nota altuagoak eman zizkioten jasotako informazioari, batik bat gora egin zuen aukera komenigarrienen inguruko laguntzaren pertzepzioa.

JASOTAKO INFORMAZIOA (10en gaineko puntuazioa)

	AURREZ AURREKO ARRETA			TELEFONO BIDEZKO ARRETA	GUZTIRA 2015	GUZTIRA 2014
	Bilbo	Donostia	Gasteiz			
Informazioaren erabilgarritasuna	8,1	8,5	8,7	9,1	8,7	8,2
Informazioaren fidagarritasuna	8,2	8,4	8,7	9	8,6	8,1
Informazioaren kalitatea	8,1	8,5	8,8	9,1	8,7	8,2
Aukera komenigarrienei buruzko aholkuak	8,0	8,1	8,6	8,8	8,5	7,8

BAT-BATEKO MEZULARITZA ETA SAREKO POSTONTZIA

Zuzenean 2008an sortu zenean, herritarrei bi aukera eman zitzaizkien haiekin harremanetan jartzeko: telefonoz (012) eta aurrez aurre, hiru euskal hiriburuetan kokatutako bulegotan. Gaur egun, kanal anitzeko arreta zerbitzu

integrala da eta, sendotzeaz gain, modernizatu egin da eta herritarren arretarako forma berriei egokitu zaie. Legealdi honetan, Eusko Jaurlaritzak herritarren arretarako beste bi kanal gehitu ditu:

- **Online:** 2014ko abenduan Eusko Jaurlaritzak sareko postontzi bat jarri zuen bere webgune ofizialean (www.euskadi.eus) herritarren kontsultei erantzuteko.
- **Bat-bateko mezularitza:** 2015eko ekainean, ZUZENEAN *Telegram* erabiltzen hasi zen herritarrekin harremanetan jartzeko, 688 67 12 34 telefono-zenbakiaren bitartez.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKO JAURLARITZAK NPB-REN LAGUNTZAK EUSKADIN APLIKATZEKO ARAU BERRIAK EMAN DITU. 50 MILIOI EUROREN LAGUNTZAK DIRA URTEAN

- **Arau testu honetan oinarrizko ordainketaren erregimenerako eskubideak eta laguntza zuzenen erregimenerakoak esleitzeari buruzko garapen eta aplikazio arauak ezartzen dira**
- **Nekazaritzako lursailen Informaziorako Sistemaren aplikazioa (SIGPAC) eta baldintzapekotasuna ere arautzen ditu**

Otsailaren 16an Gobernu Kontseiluak egindako bileran, Eusko Jaurlaritzak onarpena eman dio Nekazaritza Politika Bateratuan (NPB) jasotzen diren laguntzen ordainketa zuzenen gainean Espainian eta Erkidegoan eman diren oinarrizko araudiaren aplikazioa arautzeko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako dekretuari. Araudi berriak, orain arte indarrean egon dena ordeztu duenak, Nekazaritzako Lursailen Informazio Geografikorako Sistemaren garapena ere aurreikusten du (SIGPAC), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko baldintzapekotasunari buruzko arauen garapena ere.

Bereziki, hauen gaineko arauak ematen dira:

- Nekazaritza Politika Bateratuaren oinarrizko ordainketaren erregimenerako eskubideak esleitzea.
- Hauetarako laguntza komunitarioen erregimenak:
 - Oinarrizko ordainketa.
 - Klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza jardueretarako ordainketa
 - Nekazaritza jarduera bati ekiten dioten nekazari gazteentzako ordainkea osagarria
 - Ordainketa elkartuak
 - Nekazaritza ustiategi txikietarako erregimen erraztua
- Nekazaritzako lursailen informazio geografikorako sistema (SIGPAC)
- Oinarrizko ordainketen, landa garapenerako hainbat laguntzaren, edo mahastizaintzaren sektorearen laguntzarako programa batzuen ondoriozko ordainketen onuradunak diren pertsonak bete beharreko baldintzapekotasun arauak.

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke "nekazari aktiboak" izan eta, aldi berean, kasuan kasuko lerro bakoitzean zehazten diren betekizun eta obligazioak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Dekretu honetan aurreikusten diren laguntzak finantzatzeko erabiliko dira diru baliabideak Nekazaritza Bermatzeko Europako Fondotik etorriko dira (FEAGA) eta guztira 50 milioi euroren balioa izango dute urtean. Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailearen bidez ordainduko dira laguntzak.

Enplegu eta Gizarte Politikak

2013-2016KO ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEAREN 2014KO EBALUAZIO-TXOSTENAREN LEGEBILTZARRERA BIDALI DU GOBERNU KONTSEILUAK

Angel Toñak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuak, 2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzentzailearen 2014ko ebaluazio-txostena aurkeztu du gaurko Gobernu Kontseiluan. Orain, txostena Legebiltzarrera bidaliko du Jaurlaritzak, hango Enplegu, Gizarte Politika eta Etxebizitza Batzordeak aztertu dezan. Ezarritako politikak hobetzeko tresna da.

2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzentzaileak ebaluazio- eta segimendu-sistema bat ezartzea proposatzen du, finkatutako helburu eta ekintzei dagokienez zer aurrerapen egon diren neurtzeko eta aztertzeko. Horretarako eta besteak beste, txosten bat egitea proposatzen du urteroko etxebizitza-politika publikoak ebaluatzeko.

Lehenengo zatian, higiezinaren merkatuaren urteko laburpena jaso behar du txostenak, testuinguruaren egoera aztertu ahal izateko. Bigarreanean, berriz, etxebizitza-politika publikoak ebaluatu behar ditu, aurreko planetan finkatutako irizpideei jarraikiz (eraginkortasuna, efikazia, gogobetetasuna, ekitatea eta koherentzia).

Gainera, egungo egoera aztertzeko aukera ez ezik, arrakastarik izan ez duten ekintzetan neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera ere eman behar du txostenak, baita programak hobeto indartzeko aukera ere.

Ogasuna eta Finantzak

JAURLARITZAK ETE ETA AUTONOMOENTZAKO 2016KO FINANTZA-LAGUNTZA PROGRAMA ONARTU ETA FINANTZA-ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO HITZARMENA EGUNERATU DU

Gobernu-kontseiluak gaurko bileran Euskadiko ETE eta autonomoei zuzendutako 2016ko finantza-laguntza programari buruzko dekretua onartu du. Horren helburua da aipatutako taldeei likidezia-beharrak eta kapital zirkulatzailarekin lotutako finantza-beharrak betetzen laguntzea.

lazkoaren aldean, 2016ko programan, maileguren interes-tasa murriztu egingo da; gehienez sei hilerako Euriborra + gehieneko diferentzial batzuk eragiketaren epearen arabera: % 1 hiru urteko eragiketen kasuan eta % 1,25 bost eta zazpi urteko eragiketen kasuan. Programaren gainerako ezaugarriak ez dira aldatu.

Programa ezartzeko, Ogasun eta Finantza Sailak dagozkion hitzarmenak sinatuko ditu elkarren bermerako sozietateekin eta finantza-erakundeekin.

Halaber, finantza-erakundeekin lankidetzan aritzeko hitzarmena moldatu dute, azaldutako baldintza-aldaketen arabera eguneratzeko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

ANTZERKI ETA DANTZAKO GOI IRAKASKUNTZAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu ditu Antzerkiko –Interpretazioa espezialitatean-, eta Dantzako –Koreografia eta Interpretazioa espezialitatean- goi mailako arte-irakaskuntzak ezartzen dituzten eta irakaskuntza horien ikasketa-planak finkatzen dituzten Dekretuak.

2015-2016 ikasturte honen hasieratik Dantzertin, Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolan, eskaintzen ari diren irakaskuntza hauen ikasketa planak, Goi Hezkuntzako Espazio Europarraren proposamenetik eraten dira; izan ere, eta Espazio Europarraren proposamen horren arabera, ikasketa-planek ikasleek gaitasunak eskuratzea, ikasteko beste metodologia baten aplikazioa eta ebaluatzeko prozeduren egokitzapena izan behar dituzte oinarri. Ondorioz, ikaskuntzaren emaitzak eta ikasleek egindako lan-bolumena agertzen dituen neurri-unitatea kreditu europarrak (ECTS) deritzotenak izatea proposatzen da. Ikasleen mugikortasuna bermatuko da eta emango zaie Tituluaren Gehigarri Europarra lortzeko aukera.

Antzerkiko eta Dantzako goi mailako arte-irakaskuntzek lau ikasturteko iraupena dute, 60 ECTS kreditu ikasturteko, 240 ECTS krediturekin guztira, kredituak transferitzeko sistema europarraren arabera. Kredituak ikasketa-plana osatzen duten arlo eta irakasgai guztien artean banatuko dira.

Irakaskuntza horietara sartu ahal izateko, Batxiler titulua edo baliokideren bat izan beharko da, edo Unibertsitatera sartzeko proba gainditua izatea, hogeita bost urtetik gorakoen kasuan.

Eskatutako titulazioa ez duten hemeretzi urtetik gorako pertsonak izango dute zuzenean sartzeko aukera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak araututako proba bat gaindituz. Batxilergoaren helburuei begira behar den heldutasuna dutela eta irakaskuntzak aprobetxamenduz egiteko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak dituztela egiaztatu beharko dute proba horretan izangaiek.

Bi kasuetan, nola nahi, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak araututako sarrera-proba bat gainditi beharko da. Ikasketa horiek aprobetxamenduz egiteko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak baloratuko dira proba horretan.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATU DU URKIOLA

Gobernu-kontseiluak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu du Urkiola (ES2130009), Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetan. KBEren mugak bat datoz Europako Batzordearen Batasunaren Garrantzizko Lekuen mugekin, Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrendan.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik azaldu duenez, «arauarekin, bermatuta egongo da KBEen, Natura 2000 sarearen barruan, Europako zuzentarauan ezarritako Batasunaren intereseko habitat naturalak eta fauna eta flora basa-espezieak kontserbazio-egoera mesedegarri batean zaintzea eta lehengoratzea. Halaber, basa-hegaztien eta erregulartasunez heltzen diren hegazti migratzaileen biziraupena eta ugalketa ziurtatuta dago eremuak barne hartutako azaleran, Europako biodibertsitatearen mesedetan».

Urkiolako KBEren zuzentaruak eta kudeaketa-neurriak Urkiolako Parke Naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan Artezkariari gehituko zaizkio. KBE izendapenarekin prozedura bat hasiko da, Parke Naturalaren eta KBEren mugak bateratzeko. Era berean, Parke Naturalaren Natur Baliabideak Antolatzeko Plana (NBAP) izango da bi naturagune babestuek arautzeko dokumentu bakarra, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legeak dioen bezala.

1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko, eta 2003ko ekainaren 10eko bileretan hartutako Erabakien bidez, gobernu-kontseiluak Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu zituen, eta 52 eremu proposatu Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda, Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkienak. Haietako bat da Urkiolako (ES2130009) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), Atlantikoko eskualde biogeografikoan.

Urkiolako gunean Batasunaren intereseko 16 habitat mota egiaztatu daude gutxienez; horietatik, hiru lehentasunekoak dira. Gune horretan Europako zuzentarauan zerrendatutako hogeita zazpi espezie daude gutxienez, eta baita hamalau hegazti-espezie ere, gutxienez. Antzinatek gizakien jarduerak zehaztu du inguruko paisaia, eta horren emaitza da Urkiolaren egungo banaketa.

Urkiola funtsezkoa da harkaitzei lotutako zenbait habitaten eta pagadi azidofiloen kontserbaziorako. Harkaitzetako hegaztien presentzia nabarmendu daiteke, besteak beste, sai arrea, belatz handia eta sai zuria. Harkaitz-zozo

gorrien eta harkaitz-zozo urdinen populazioak aurki daitezke. Landarediari dagokionez, nabarmentzekoak dira *Narcissus asturiensis* eta *Narcissus pseudonarcissus* (*nobilis* azpiespeziea) espezieak.

Guneak naturagune babestuaren tipologia bikoitza du: Parke Naturala da eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua da. Dekretuaren helburua da Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea Urkiola. Izendapen horrekin batera, dagozkion kontserbazio-neurriak ere onartu behar dira, eta Eusko Jaurlaritzak du horretarako eskumena. Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek aldi berean tramitatu duten EKAPA bidali eta gero, Eusko Jaurlaritzak Plan horren araugintzako zatia onartuko du eta dokumentu guztia EHAAn argitaratzeko agindua emango du.

Baltzola-Indusiko Karsta

Urkiola KBEn kontserbazio-dokumentua prestatzeko lan-teknikoak gauzatzeko, gainera, naturagune babestua Baltzola-Indusiko Karst ingurura zabaldu da. Baltzolako koba berebiziko garrantzia duen gunea da hainbat kiroptero espezie mehatxaturentzat: *Rhinolophus euryale*, *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposidero* eta *Miniopterus schreibersii*. Haien populazioak arriskuan daude, ordea, kobazulora iristea erraza denez, pertsona asko hurbiltzen delako bertara denbora libre pasatzeko edo kirola egiteko.

Gainera, naturagune babestuan sartu nahi den eremuan aipatzekoak dira Abaro-Jentilzubi sistema (interes hidrogeologiko handikoa), artadi kantauriarreko harkaiztiak eta txilardi kaltzikolak. Indusiko karsta EAeko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan bilduta dago. KBEn zabalpenak erabateko eraginkortasuna izateko beharrezkoa da Europako Batzordeak aurrez baliozkotzea. Hori dela-eta, eremua zehazten duen kartografiak bi muga-lerroak jasotzen ditu.

Arau hori argitaratzen denean, Urkiolako Parke Naturaleko NBAP aldatuko da II. eranskina gehituz, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa den dokumentu bakar hori lortzeko. Horretarako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren (NKLTB) 7. artikuluan ezarrita dagoen prozedura zail eta luzearen tramiteak bete beharko dira, baina Europarekiko obligazioak beteta izango ditugu.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK ARMAÑON KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATU DU

Eusko Jaurlaritzak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu du Armañon, Bizkaiko Lurralde Historikoan. Eremuak 3.004 hektareako azalera du eta Europako Batzordearen Garrantzizko Lekuen mugekin bat egiten du. Arauarekin, bermatu nahi da KBEn Batasunaren intereseko habitat naturalak eta fauna eta flora espezie basatiak kontserbazio-egoera mesedegarri batean zaintzen eta lehengoratzen direla. Halaber, basa-hegaztien eta erregulartasunez heltzen diren hegazti migratzaileen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea da arauaren beste helburu bat, guztia Europako lurraldearen biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzen laguntzeko.

KBEren zuzentarauak eta kudeaketa-neurriak Armañoneko Parke Naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan Artezkariari gehituko zaizkio. Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak egingo ditu beharrezko diren tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuko Administrazioa Orokorrekin nola Europar Batasunarekin.

1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko, eta 2003ko ekainaren 10eko bileretan hartutako Erabakien bidez, gobernu-kontseiluak Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu zituen, eta 52 eremu proposatu Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie. Haietako bat da Armañoneko (ES2130001) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), Atlantikoko eskualde biogeografikoan.

Haren mugek eta 2006an deklaratu zen izen bereko Parke Naturalaren mugek bat egiten dute leku askotan. Hortaz, gaur egun guneak naturagune babestuaren tipologia bikoitza du: Parke Naturala da eta Natura 2000 Sareko Eremua da.

Azkenean, KBE 38 hektarea handiagoa da BGLrekin alderatuta. Hori, izatez, ez da BGLren mugen aldaketa esanguratsu bat, ez eta habitat naturalek azalera duten ordezkaritzarena edo Batasunaren intereseko flora- edo fauna-espezieen populazioena ere; hala eta guztiz ere, Batzordeak baliozkotzea beharrezkoa da.

Bizkaiko Mendebaldeko muga

Eusko Jaurlaritzak Armañoneko eremuko Baliabide Naturalak Antolatzen Plana onartu zuen 2006an, eta horren bitartez babes-erregimen berezia eman zion parke natural izendatuz.

Armañon Bizkaiko mendebaldeko mugan dago, Kantabriatik gertu, eta Enkarterriko bi udalerriren lurretan kokatzen da: Karrantza Haranean eta Turtziozen. Karrantza eta Agüera ibaiaren artean dauden mendi batzuek osatzen dute, 850 metroko garaierara arte iristen direnak. Mendebalderen dagoen mendia Raneroko gailurra da. Karezko mendigune hau Karrantza Haraneko paisaiaren erreferentzia nagusia da. Elebazioek aurrera jarraitzen dute ekialderantz, profil borobilduagoak dituzten mendiekin, eta Los Jorrioseko lapiaz handian amaitzen dira; artadi itxi bat dago haren magaletan. Ipar-mendebaldean Remendón ibaiaren iturria dago. Inguru horretan dago izen bereko basoa, interes naturalekoa, Peña del Cuadro mendiaren inguruan zabaltzen dena. Hegoaldera begira dauden mendi-hegalek mosaikoz jositako paisaia erakusten dute, eta nonahi ikusten dira belardiak, zelaiak, sastrakak eta baso-sartzeak.

Armañoneko inguruan mendeetan zehar jardun izan dute abeltzaintza intentsiboan; horren ondorioz, basoek atzera egin dute eta horien ordeko landaredia hedatu da, hala nola, sastrakak eta belardiak. Suaren eta artzaintzaren bitartez larreak zabaltzen saiatu ziren mendeetan zehar, baina lurzoru silizeoen eskasiak eta kare-lurren garapen urriak ez dute horretarako betarik eman. Horren orde, oro har txilardiz, otadiz edo iratzediz edo haitzez osatutako mosaikoa eratu da. Hala eta guztiz ere, badaude zuhaitz autoktonoen masa batzuk; hala nola, harizti eta pagadi txikiak eta, kare-lurretan, artadi kantauriarrak. Era berean, eremu horretan praktikatu izan diren ehiza-modalitate tradizionalak ere jarduera garrantzitsua dira KBEren alorrean.

Batasunaren garrantziko 12 habitat

Armañoneko mendigunea Autonomia Erkidego guztian saguzarrek (kiropteroek) duten lekurik garrantzitsuenetakoa da. Euskadiko mendebaldeko puntan baino ez dauden beste fauna-espezie batzuk ere bizi dira hor; besteak beste, Schreiber muskerra, elur-lursagua, sator iberiarra edo erbinude zuria. Aipatzekoak dira, halaber, ornogabeen beste espezie batzuk; hala nola, *Elona quimperiana* edo *Lucanus cervus*. Intereseko florari dagokionez, nabarmendu beharrekoak dira *Culcita macrocarpa*, *Woodwardia radicans*, *Pinguicula lusitanica*, *Spiranthes aestivalis*, *Prunus lusitanica* edo *Sempervivum vicentei*, besteak beste.

Era berean, Batasunaren intereseko 12 habitat mota daude: horietatik bi, lehentasunekoak habitatak dira. Gutxienez, Batasuneko zuzentarauan dauden bi flora-espezie eta 8 fauna-espezie daude inguru horretan. Era berean, aipatu beharra dago gutxienez 15 hegazti-espezie bizi direla bertan. Horregatik guztiagatik hautatu zuten gune hau Natura 2000 Sarean sartzeko. Europako Batzordeak onartu zuen, bai eta Batasunarentzat garrantzia duten Atlantikoko Eskualde Biogeografikoko guneen zerrendan sartu ere.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK ADIERAZI DU PREMIAZKOA DELA LURRAK OKUPATZEA «SANTA CLARAKO URAK ETA DELIKAKO BILTEGIA ELKARTZEKO ETA SANTA CLARA ETA LANDATAS ARTEAN URA ERAMATEKO PROIEKTURAKO»

Eusko Jaurlaritzak esan duenez, premiazkoa da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, jabetzak nahitaez kenduz, ondasunak eta eskubideak lortzea, «Santa Clarako urak eta Delikako biltegia (Amurrio, Araba) elkartzeko eta Santa Clara eta Landatas artean ura eramateko proiektua osatzeko lanen 1. proiektua» egin ahal izateko.

«Santa Clarako urak eta Delikako biltegia elkartzeko eta Santa Clara eta Landatas artean ura eramateko proiektua osatzeko lanen 1. proiektua» landu eta formalki onartu zuen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, eta egitasmoa gauzatzeko lursail guztiak bere esku izateko beharra jarri zuen mahai gainean.

Jendaurreko informazioaren tramitea egin zen, legeak agindu bezala eta, alegaziorik aurkeztu ez zenez, Zerbitzu Teknikoek ebatzi dute ez dagoela hirigintza-arloko arazorik espedientea tramitatzeko.

GOBERNU-KONTSEILUAK IZASKUN IRIARTE IZENDATU DU AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOKO ORDEZKO KIDE GISA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak Añanako Gatz Harana Fundazioan duen ordezkoko kidea izango da Izaskun Uriarte, Eusko Jaurlaritzak gaur hala erabakita. Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak Elena Lete ordezkatu du Fundazioan.

Fundación Valle Salado de Añana – Añanako Gatz Harana Fundazioa 2009an eratu zen. Helburu nagusia Añanako Gatz Harana eta haren ingurua indartzen, zaharberritzen eta goitik behera birgaitzen laguntzea da, eta baita Haranaren sustapen turistikoa egitea ere.

Arabako Foru Aldundiak eta Añanako Udalak sortu zuten eta, 2013 gobernu-kontseiluan hartu zen erabaki baten bitartez, estatutuak aldatu ziren Eusko Jaurlaritzak ere Fundazioaren kide bihurtu zedin. Erabaki horren bitartez EAEko Administrazio Orokorrak Fundazioaren patronatuan izango zituen kideak hautatu ziren: Cristina Uriarte eta Ana Oregi, eta haien ordezkok, Imanol Agote eta Elena Lete. Azken horrek kargua utzi du gaur Bergarako alkate aukeratu dutelako.

Ingurumena eta Lurralde Politika

<p>FERNANDO URIONDO IZANGO DA ELENA LETEREN ORDEZKOA URDAIBAICO BIOSFERAKO ERRETSERBAREN PATRONATUAN</p>

Fernando Uriondo Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria izango da Elena Leteren ordezkoa Urdaibaiko Biosfera Erresterbaren Patronatuan, gaur goizean Eusko Jaurlaritzaren gobernu-kontseiluak erabaki duenez.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria da Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaria Urdaibaiko Biosfera Erresterbaren Patronatuaren osoko bilkuran eta, kargua beste pertsona batek hartu duenez, beharrezkoa zen beste ordezkari bat izendatzea.

Presidencia

APROBADAS AYUDAS POR UN MILLON DE EUROS A PROYECTOS SOBRE MEMORIA HISTÓRICA, PAZ, CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS

El Gobierno Vasco destinará este año 1.005.000€ a ayudas para la financiación de proyectos que promuevan honrar y reconocer la Memoria Histórica y fomenten la paz y una convivencia democrática fundamentada en el compromiso con los derechos humanos. Las respectivas convocatorias de estas ayudas se recogen en tres resoluciones de la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos que hoy han recibido el visto bueno del Consejo de Gobierno.

En concreto, el Ejecutivo Vasco subvencionará con 600.000 euros programas e iniciativas en materia de Derechos Humanos, Paz y Convivencia que desarrollen organizaciones y movimientos sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y con 300.000 euros los proyectos que sobre esta misma materia lleven a cabo los municipios y demás entidades locales de la CAPV.

En ambos casos, las ayudas servirán para financiar la puesta en marcha de planes en materia de paz y convivencia, y proyectos de resolución de conflictos en el ámbito escolar o familiar; así como para la organización de cursos, talleres, jornadas divulgativas y actividades formativas y de sensibilización.

Por lo que se refiere a la Memoria Histórica, el Gobierno destinará un total de 105.000 euros a subvencionar proyectos dirigidos a la recuperación, difusión y conocimiento de la memoria histórica y de los valores democráticos, y la lucha por la democracia y la libertad en la Comunidad Autónoma Vasca, durante el período comprendido entre 1936-1977. A estas ayudas podrán acogerse las personas jurídicas de carácter privado y sin ánimo de lucro que tengan como objetivo en sus estatutos la recuperación de la memoria histórica.

El plazo para acceder a las ayudas se inicia al día siguiente de la publicación de estas resoluciones en el Boletín Oficial del País Vasco y finaliza un mes después de dicha fecha.

Administración Pública y Justicia

EL GOBIERNO RESPONDIÓ EN 2015 MÁS DE 3.500 CONSULTAS DIARIAS A TRAVÉS DE “ZUZENEAN”, EL SERVICIO GRATUITO DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA

- En 2015, el Gobierno respondió a 875.827 cuestiones, la mayoría realizadas en Bizkaia, por mujeres, en castellano y a través del canal presencial.
- La mayoría de la información que busca ciudadanía tiene que ver con la vivienda, educación, el empleo o las ayudas sociales.
- Las personas que utilizan este servicio gratuito lo valoran con un 8,5 sobre 10, sobre todo por el trato que reciben del personal que trabaja en ZUZENEAN.
- También se valora muy positivamente la calidad, fiabilidad y utilidad de la información recibida.

El Consejo de Gobierno ha analizado hoy el balance 2015 de ZUZENEAN, el servicio público y gratuito, que atiende a la ciudadanía vasca a través de cuatro canales: presencial (*tres oficinas en las tres capitales*), telefónico (012), buzón online (situado en www.euskadi.eus) o mensajería instantánea (*Telegram a través del número 688 67 12 34*). El pasado año, ZUZENEAN atendió un total de 875.827 consultas, una media de 3.532 consultas diarias. Esto supone un incremento del 5,5% con respecto a 2014, cuando se atendieron 829.818 consultas.

CONSULTAS ATENDIDAS EN 2015

